

## V - BESTELAKOAK

### URAREN EUSKAL AGENTZIA

#### MENDEBALDEKO KANTAURIAR ARROEN BULEGOA

**Luiaondon, Aiarako udalerrian (Araba), edateko uraren banaketa-sarea eta hondakin-uren saneamendu-sarea partzialki berritzea**

Espediente-zenbakia: AO-B-2019-0407.

Eskatzailea: Luiaondoko Administrazio Batzordea.

Luiaondon, edateko uraren banaketa-sarea eta hondakin-uren saneamendu-sarea zati batean berritzeko jarduketak egingo dira, Arana jariatze-uraren jabari publiko hidraulikoari eraginez, Aiarako udal-mugartean (Araba).

Iragarki hau argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita hilabeteko epean, jendeak horren berri izan dezan ematen da aditzera hau, eskatutako baimenarekin kaltetutzat jotzen direnek beren erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten, epe horretan, Bilboko Urkixo zumarkaleko 36. zenbakian (Bizkaia Plaza eraikina, 7. solairua) dauden bulego hauetan. Bertan, espedientea agerian egongo da.

Bilbao, 2021eko azaroaren 8a

*Obra-baimenen arduraduna*

**MARÍA JOSÉ GUERRERO VERDEJO**